

Guraso agurgarriak:

Datorren azaroaren 8an (17:00ean), familientzat zuzendutako "Aniztasuna: sexu eta genero aberastasuna" izeneko formakuntza abiatuko dugu.

Erabiliko den metodologia eta argudio sexologikoa, taldearen beharrizan eta berezitasunetara egokituko dira eta Berdindu Eskolak zerbitzuko profesionalek bideratuko dute. Ikastaroaren iraupena 2 ordukoa izango da, batzaz beste.

Helburuak:

- Sexu aniztasuna modu baikorren lantzea.
- Tresnak eskaintzea seme-alaben sexualitatearen akonpainamenduan

Edukiak:

- Zer ulertzen dugu sexualitateari buruz hitz egiten dugunean? Sexualitatea praktika genitalak baino haratago ulertzea, gorputzen, plazerren eta desiren bizipena baita.
- Aniztasuna - genero eta sexu aberastasuna: feminitateak/maskulinitateak, desirak, sexu eta genero identitateak...
- Telebista eta sare sozialen eragina: harreman ereduak.
- Harreman afektiboak: komunikazioa, adostasuna eta errespetua.
- Familien papera: Nola lagundu seme-alaben sexualitatean?

Familien ohiko galderak:

- Zein adinetan komeni da hitz egitea seme alabekin sexualitateari buruz?
- Ze motatako mezuak transmititu behar ditugu sexualitatea balio positibotzat ulertzeko?
- Eta aurreratzen bagara?
- Nola sortu konfidantzazko giroa seme-alabekin sexualitatearen inguruan hitzegiteko?
- Nire semeak/alabak ez du beste klasekideen aurrean dutxatu nahi... nola jokatu? Zein izan daiteke arrazoia?
- Nola landu aniztasun sexuala seme-alabekin? Eta familia aniztasuna?
- Zer esan hilekoari buruz?
- ...?

Honako puntuak, eta bestelako esperientziak, kezkak, iritziak edo iradokizunak eztabaidatzeko sekulako aukera bihurtzeko asmotan, gonbidatzen zaituztegu!

Nik....., umearen ama/aita/tutorea, parte hartuko dut.
Nik....., umearen ama/aita/tutorea, EZ dut parte hartuko.

Izena emateko azken eguna, azaroaren 2a

Agur bero bat!

